

A1154

ezagutzen al duzu Donostia?


Etxolaberri

Urumea haranean mendian nabilela, Ereñotzuko aiton batek hau esan zidan: «Aranoko mugetan dagoen *Etxolaberri* mehatza eta baserria, *Eztiza* eta *Asketa* mendiak Donostiarenak ziren». Harritu egin nintzen ikusita nola oraindik zahar batzuek oroitzen duten, joan den mende erdi aldera arte Donostiako hiriarenak ziren *Urumeako Zillegietako* hego aldean dauden mendi zabalak. Zilegi mendi edo herri mendi zabal hauek XIX. mende aldera desamortizazio legeak zirela eta Donostiako hiriak galdu egin zituen. Jabego pribatuetara pasa ziren eta garai berean ere Hernaniko jurisdikziora. Eremu zabal hauek iparraldetik Hernaniko dermioarekin mugatzen zuten; hego aldera berriz Berastegi eta Elduaiengo lurrekin. Mende baldera Urnieta zuten eta ekialdera berriz Arano herri nafarra. Oso aberatsak ziren, ohian, baso, artzantza eta mehatzak zeuden bertan. *Etxolaberriko* mehatzak oso handiak ziren, pirita edo betaberun zilartsua ateratzen zen, entrepresa ingeles batek ustiatua, hainbat lan-



Gihaitargo mugarrja. Etxolaberriko mehatza eta baserritik iparraldera kasko batean dago.

Etxolaberri baserria XIX. mendearen erdi aldera eraiki zen.



Hirimugarrietako mugarrja. Antxistan dago. SS, H, V izkiak irakur daitezke.

Ilintxarbeko «Judu-maya». Zaburuko kaskoa. Eskuinaldeko pinudia Antxistako basoa da.

gileen lantegia izan zen. *Asketa*, *Etzala* eta batez ere *Eztizako* basoetatik egurikatza asko ateratzen zen. Artzantza oso zabaldua zegoen, eta lekuko dira mendi hauetan topa ditzakegun sarobeak edo artzainbarruti zaharrak: *Samielso-ro*, *Muatz*, *Garagartzza*, *Eztizan*, *Aizpurua Sarobia* deitzen dena. Zubietako Aizpu-

rua oinetxe ezaguna eta boteretsuaren jabegoa izan zen hau zalantzarik gabe. Elena Barrena historialariak Gipuzkoaren sorrerari buruz egin zuen liburuan «Zamilola», «Muez» eta «Guaragarze» toponimoak aipatzen ditu jadanik XII mendean.

Beste alde batetik mendi hauetan historiaurreko hainbat aztarna aurkitu ditzake-

gu: harresoilak eta trikuharriak edo «Judu-mayak» (azken deitura esanguratsu hau mendi honetan ibiltzen ziren artzaletatik ikasi nuen). Interesgarriak dira ere mendi eder hau mugatzen duten mugarriak, hauek ditugu gaur egun ere kontaktu dugunaren lekuko ixilak.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

Imprenta
ORONAS
AUTOEDIZIOA ETA DISEINU GRAFIKOA

LAN AZKARRAKI!

Kale Berria 17 behea • Tfnoa.: 27 18 60

GAS
INSTALAKUNTZAK

URKO

Seriotasuna, kalitatea eta materialik onenak

Madrid hiribidea 10 • Tfnoak.: 45.30.89 eta 909-42.69.54